

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 532/2019 Erabakia, abuztuaren 2koa. Onestea Miren Saratxaga De Isla andrea Gizarte Zerbitzuen zuzendari kargutik kentzeari, berak hala eskatuta**

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 20ko 888/2016 Erabakiaren bidez, Miren Saratxaga De Isla izendatu zen, Gizarte Zerbitzuen zuzendari lanpostuan.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Ikusi da Miren Saratxaga De Isla andreak aurkeztutako ukoa; beraz, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. – Miren Saratxaga De Isla Gizarte Zerbitzuen zuzendari kargutik kentzea, berak hala eskatuta, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko irailaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**